



BERRI OROKORRAK

2020ko urtarrilaren 10ean 16. zenbakia

1.-Artezkaritza-Kontseiluaren oharra.

Ikastolako Artezkaritza Kontseiluak abenduko bileran erabaki zuen “Xua gurasoekin etxera” plataformari bere atxikimendua azaltzea, plataforma aurrera eramaten ari den aldarrikapenarekin bat eginez, hau da, agintariei eskatuz, salbuespenezko legeak alboratu eta legez eta gizalegez joka dezatela.

Xua, urtarrilaren 20an gure artean izango da Haur Eskolan eta umearen harrera eta egokitzapen prozesua errazteko eta goxatzeko prestaketetan ari gara!

Egin dezagun bat haurren eskubideen defentsan!

2.-Eski-irteeraren inguruko bilera.

Urtarrilaren 21ean, asteartea, arratsaldeko 17:00etan DBHko eraikinean eskiatzera joango diren ikasleen gurasoei zuzendutako bilera informatiboa egingo da.

OHARRAK ETAPAKA



HE

Ez dago berririk.



HH

1.-Danborrada.

Datorren ostiralean, urtarrilak 17, arratsaldeko 16:00etan danborrada joko dugu Agerialdeko jolastokian LHko ikasleekin batera.

Egunean bertan, haurrak galtza bakeroekin edo urdinekin eta koadrodun lepoko zapiarekin jantzita bidal itzazue.

OHARRA: entsegetarako danbor-makilak izenarekin ekarri, mesedez.



LH

1.-Material-kobrantza.

2019/20 ikasturteko eskola-materiala urtarrileko erreziboarekin batera kobratuko zaizue, 32,50 € izango dira. Familiaren batek epeka ordaindu nahiko balu, mesedez, deitu idazkaritzara ahalik eta azkarren.

2.-LH 1eko ikasleen irteera.

Datorren ostegunean, urtarrilak 16, 1. mailako ikasleak Mendukiloko kobazuloetara egingo dute egun osoko irteera.

3.-LH 5eko ikasleen irteera.


Datorren **ostiral goizean**, urtarrilak 17, 5. mailako ikasleak **Txuri-Urdin izotz jauregira** joango dira.

4.-Danborrada.

Datorren **ostiralean**, urtarrilak 17, arratsaldeko **16:00etan** danborrada joko dugu Agerialdeko jolastokian HHko ikasleekin batera.

Egunean bertan, ikasleak **galtza bakeroekin edo urdinekin, gerritik gora txuriz jantzita eta koadrodun lepoko zapiarekin** bidal itzazue.

OHARRA: **entseguetarako** danborrak eta makilak **izenarekin** ekarri, mesedez.



1.-Sex-isiltasuna apurtzeko bideak.

12-16 urte bitarteko nerabeen sexualitatea.

DBHko ikasle guztien guraso eta arduradunei zuzenduta.

DATAK : **Urtarrilaren 16an eta 23an (ostegunak biak)**

ORDUTEGIA: 17.00-19.00

NON: Udarregi ikastolan, DBHko eraikinean

Maiz, sexualitate gaiari heldu nahi diogunean, gure gaztetxoak jada ez dute gurekin hitz egin nahi. Nola has gaitezke sexualitateaz hitz egiten? Zer helarazi nahi diegu? Nola komunikatu? Zer behar dute?

Ikastarora etortzeko asmoa baduzu, arreta jarri egunerokoan. Gertaerak, egoera zehatzak, elkarrizketak, galderak jaso ditzakezu eta Ikastaroan lantzeko aukera izango dugu.

Ikastaroaren helburu nagusiak dira:

- Sexualitatea aberasten gaituen balore bat dela ikusi.
- Seme-alaben, sexu-ezaugarri orokorrak ezagutu.
- Heziketarako klabeak eskuratu: kontzeptuak, jarrerak eta komunikazioa.
- Hainbat kontzeptu eta gai: Identitate anitzak, desiraren orientazioa, erotika, errespetuzko harremanak, ardurak eta eskubideak, potentzialak versus estereotipoak, pornografia...

Aholkularitza pertsonalizatua izateko aukera egongo da.

IZENA EMATEKO ETA INFORMAZIOA JASOTZEKO

EPEA: Urtarrilaren 17ra arte

NON:

Izen abizenak, telefonoa eta ikastaroaren izena bidali sexuholku@usurbil.net helbide elektronikora, 697919516 telefonora *watxapa* bidali edo deitu eta mezua utzi.

2.-DBH 2ko ikasleen irteera.

Datorren ostegunean, urtarrilak 16, DBH 2ko ikasleek egun osoko irteera izango dute Pasaiako Albaola Museora.